II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

## Bilboko Udala

**Iragarkia, Bilboko Udalarena, Suhiltzaile Ofizialaren plaza 1, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoa, lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartu eta hautaketa-prozesurako deialdia egin da.**

Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzi ordezkariak, Alkatetzaren 2023ko ekainaren 17ko Ebazpenaren bidez eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 17ko erabakiaren bidez emandako ahalmenak baliatuz, hau xedatu du 2023ko urriaren 25eko Ebazpenaren bidez:

«*Bat:* Tokiko Gobernua Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeari erantsitako 127. artikuluan eta Gobernu Batzordeak 2023ko ekainaren 17an hartutako erabakian ezarritakoarekin bat etorrita, suhiltzaile ofizialaren plaza 1 (A lanbide-sailkapeneko taldekoa, A1 azpitaldekoa, euskararen derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna duena, Administrazio Bereziko Eskalan integratua, zerbitzu berezien azpieskalakoa (suteak itzaltzeko klasea), A-1 azpitaldeari dagozkion ordainsariak dituena, 2020ko lan-eskaintza publikokoa, lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz karrerako funtzionario moduan jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartu ziren eta ebazpen honen eranskinean agertzen dira eta, era berean, hautaketa-prozesuaren deialdia egin da.

*Bi:* Nahi izanez gero, ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasita. Hori horrela da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluaren arabera.»

Bilbon, 2023ko urriaren 25ean.—Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaria

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

ERANSKINA

**SUHILTZAILE OFIZIALAREN PLAZA 1 JABETZAN BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**Lehenengoa.—*Deitutako plazak***

Hautaketa-prozesu hau suhiltzaile ofizialaren plaza 1 hornitzeko deitu da, eta oinarri espezifiko hauek eta indarrean dauden oinarri orokorrek arautuko dute. Plaza hori oposizio-lehiaketa bidez hornituko da, sarrera libreko sistema erabiliz, eta sailkapen profesionaleko A taldekoa da, A-1 azpitaldekoa, euskararen derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna duena, Administrazio Bereziko Eskalan integratua, zerbitzu berezien azpieskalakoa (suteak itzaltzeko klasea), A-1 azpitaldeari dagozkion ordainsariak dituena. Plaza 2020ko enplegu publikoaren eskaintzakoa da.

Bilboko Udalaren plantillako plazak jabetzan betetzeko deialdiaren oinarri orokorretako (2020ko uztailaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 131. zenbakia) hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera, deitutako plazen kopurua handitu ahal izango da, betiere deialdi honen ostean onartzen diren enplegu publikoaren eskaintzetan sartzen diren plaza hutsen arabera. Plaza kopuruaren gehikuntza hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, alkate-udalburuaren ebazpen bidez, eta adierazi beharko da zenbat plazak duten hizkuntza-eskakizuna betetzeko derrigortasun-data ezarrita. Edozelan ere, oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea amaitu ostean prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratzeko izapidearen aurretik xedatu beharko da gehikuntza hori.

**Bigarrena.—*Betekizun espezifikoak***

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, betekizun hauek bete beharko dira:

a) Eskabideak aurkezteko epea amaitzean, Lizentziatura edo Graduko unibertsitate-titulua izatea edo lortzeko moduan egotea, Europar Batasuneko arauek ezartzen dutenaren arabera.

b) Espainiako nazionalitatea edukitzea, oinarri orokorretako (2020ko uztailaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 131. zenbakia) bosgarren oinarriko lehen puntuan ezarritakoaren arabera.

c) Gaitasuna: Plazaren zereginak behar bezala egitea eragozten duen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea, eta oinarri hauen III. eranskinean ezarritako baztertzeko arrazoi medikoetatik bat ere izatea.

d) Adina: hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

e) Gaikuntza: diziplinazko espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, administrazio publikoei edo autonomia-erkidegoetako konstituzio-organoei nahiz estatutu-organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren arabera desgaikuntza absoluturik edo berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko.

   Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ez egotea desgaiturik edo horren egoera baliokidean, eta jaso ez izana diziplina-zehapenik edo horren baliokiderik, haren estatuan enplegu publikorako sarbidea baldintza beretan eragozten dionik.

f) Legezko desgaitasun- edo bateraezintasun-kausa baten pean ez egotea; alegia, administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitakoen arteko edozeinen pean ez egotea. Hala ere, hori ez da eragozpen izango, dagoeneko kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezin batean arituz gero, araudi horretan aipatutako aukera egiteko eskubidea baliatzeko.

g) Tasak: Dokumentuak Egiteko eta Emateko Zerbitzuaren Tasak arautzeko indarrean dagoen Bilboko Udalaren Ordenantza Fiskalean azterketa-eskubideengatik ezarritako tasa ordainduta edukitzea eskabideak aurkezteko epearen barruan.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

h) B gidabaimena izatea. Baimen horrek indarrean egon beharko du une oro, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera, hautaketa-prozesuaren gainerako aldian eta, hala badagokio, plazaren jabetzarekin karrerako funtzionario izendatu arte, ez du eduki beharko gidatzeko eskubidea etenda, erretiratuta edo kenduta arrazoi administratibo edo judizialak direla medio, eta ez ditu eduki beharko galduta esleitutako puntu guztiak.

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dituzte eskaturiko betekizun guztiak. Era berean, gainerako baldintza guztiak bete beharko dituzte hautaketa-prozesuan zehar, izendapena egin arte, gaitasun funtzionalari buruz c) atalean ezarritakoa izan ezik: kasu horretan, Udal Zerbitzu Medikoek egiaztatu beharko dute, izangaia praktiketako edo karrerako funtzionario izendatu baino lehen.

Hala eta guztiz ere, prozeduraren edozein unetan epaimahaiak jakingo balu izangairen batek ez dituela deialdiko baldintzak betetzen, izangai hori baztertuta geratuko da, entzunaldia egin ondoren, eta, egun berean, epaimahaiak horren berri emango dio hautaketa-prozesurako deialdia egin duen agintariari.

**Hiru.—*Azterketa-eskubideak***

Sei eurokoak (6,00 euro) izango dira.

Zenbateko hori ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu ahal izango da. Pasabide horretara sartzeko, eskabide-orria bete beharko da honako webgune honetan: https://ope.bilbao.eus. Era berean, azterketa-eskubideak ordaintzeko, eskabidearen kopia edo barra-kodea duen ordainagiriaren kopia jaitsi ahal izango da, eta dokumentu horretan adierazitako Bilboko Udalaren entitate kolaboratzaileen edozein bulegotan aurkeztu.

Orobat, bitarteko ez-telematikoen bidez aurkeztutako eskabideen kasuan, posta bidezko igorpenaz ere ordaindu ahal izango da tasa. Posta bidezko igorpena Bilboko Udaleko Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzari zuzenduko zaio (Venezuela plaza, 2, 5. solairua, 48001 Bilbo). Posta bidezko igorpenaren egiaztagiria oinarri hauetan erantsitako eskabide-eredu ofizialarekin batera aurkeztu beharko da.

Edozelan ere, azterketa-eskubideak eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira.

**Laugarrena.—*Eskabideak***

Eskabideak bai telematikoki eta bai paper-formatuan ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskabide telematikoak eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira. Eredu ofiziala webgune honetan lortu ahal izango da: https://ope.bilbao.eus.

Eskabide horiek helbide elektroniko horretan ezartzen den prozedura elektronikoaren bidez aurkeztuko dira. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabidean adierazi beharko da betetzen direla betekizunak eta zer merezimendu alegatzen diren, horiek guztiak zerrenda batean aipatuz eta behar beste identifikatuz, baina ez da aurkeztu beharko betekizunen eta merezimenduen egiaztagiririk, parte hartzeko betekizunak eta, hala badagokio, alegatutako merezimenduak geroago egiaztatu beharko baitira, epaimahaiak edo Kultura eta Gobernantza Saileko Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzak hala eskatzen duenean.

Eskabideak paperean aurkezten badira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako tokietan aurkeztu ahal izango dira. Horretarako, eskabide-eredu ofiziala erantsi zaie oinarri hauei, eta eskabide-eredu ofizial hori aurkeztu beharko da azterketa-eskubideei dagokien tasa ordaintzeko posta bidezko igorpenaren egiaztagiriarekin batera.

Eskabidea, dagokion tasa ordaindu izanaren agiriarekin batera, hogei (20) egun balioduneko epean egin beharko da, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera. Ondorio horietarako, domekak eta jaiegunak ez ezik, zapatuak ere ez dira egun baliodūntzat hartuko.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

Era berean, izangaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte, eta, aldi berean, eskabidea formalizatzean, baimena eman ahal izango dute behar den dokumentazioa telematika bidez kontsultatzeko; esaterako, NANa, titulu akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak, etab. Horretarako baimena emanez gero, ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharko, betiere kontsulta egiteko modurik badago elkarreragingarritasun informatikoaren bidez.

Hautaketa-prozesu honen ondorioz, lan-poltsa bat egingo da, eta haren kudeaketa Bilboko Udalaren lan-poltsak kudeatzeko irizpideen arabera egingo da. Irizpide horiek lan-poltsa egiten den unean indarrean daudenak izango dira, sindikatuekin negoziatu beharko baitira aldez aurretik. Lan-poltsa hori izaera publikoko beste administrazio edo instituzio batzuen eskura jarri ahal izango da, lehen aipatutako akordioan ezarrita dauden irizpideen arabera.

2020ko uztailaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialeann (131. zenbakia) argitaratutako oinarri orokorren hamaikagarren oinarrian lan-poltsak egiteari buruz aurreikusitako ondorioetarako, oinarri hauetan arautako hautaketa-prozesuen ondorioz lan-poltsak ere egingo direnez, prozesu horietan parte hartzeko eskaeran izangaiek adierazi beharko dute baimena emagon duten ala ez Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei datu hauek lagatzeko: izen-abizenak, NANa, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datuen lagapen horrek helburu bat eta bakarra izango du: erakunde horiek enplegu-eskaintzak egin ahal izatea legez aurreikusitakoaren arabera, eta beren adostasuna espresuki jaso ezean, ulertuko da ez dutela baimenik ematen.

**Bosgarrena.—*Epaimahaia***

Epaimahaiaren osaerari dagokionez, indarrean dagoen legerian eta Bilboko Udaleko plantillako plazak jabetzan betetzeko indarrean dauden oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, Epaimahaiak lehendakari bat, idazkari bat eta gutxienez hiru kide izango ditu, eta horien artean, nahitaez, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak proposatutako pertsona bat egongo da.

Epaimahaia, batez ere, teknikariz osatuko da, eta espezialitate-printzipioa beteko da. Beraz, epaimahaikide guzti-guztiek izan beharko dute deitutako lanpostuetara sartzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo goragoko titulua. Gutxienez epaimahaikideen erdiek izan beharko dute titulazio hau: deialdiko plazaren jakintza-arloa zein den, arlo horri berari dagokiona. Sexu bakoitzeko kideek, gutxienez, %40 izan beharko dute, non eta ez den justifikatzen hori ez dela egokia.

Epaimahaiko kide bat izendatuko da euskararen jakite-maila neurtzeko probarako. Kide horren lana horretara bakarrik mugatuko da eta gehituko zaie lehen aipatutako gainerako kideei.

**Seigarrena.—*Hautaketa-prozedura***

Izangaiak hautatzeko, oposizio-lehiaketa egingo da, sarrera libreko sistemaren bidez. Horretarako, oposizio-fasean lau ariketa egingo dira, eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratuko dira. Oposizio-fasea lehiaketa-fasea baino lehenago egingo da. Prozesu osoa osatzeko, praktikaldi bat egingo da, eta horren barruan prestakuntza-ikastaro bat egingo da.

Epaimahaiak ariketen ordena aldatu ahal izango du, edo haietako batzuk egun bakar batean jarri. Hala eginez gero, aldez aurretik jakinarazi beharko du udal webgunean: https://ope.bilbao.eus.

Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek egokitzapen materialak eskatu ahal izango dituzte, Hautaketa Sailatalari horren berri emanez, probak egin baino gutxienez bost egun baliodun lehenago.

Oinarri orokorretan ezarritakoaren kalterik gabe, deialdi honetako behin betiko onarpenaren eta bazterketaren iragarkiaren ondorengo iragarki guztiak Udalaren iragarki-taulan eta https://ope.bilbao.eus web-orrian argitaratuko dira.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

A) *Oposizio-fasea*

Oposizioan lau ariketa egin beharko dira. Horiek guztiak nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

Lehen ariketa.—Nahitaezkoa eta baztertzailea

Test motako 100 galdera erantzun beharko dira idatziz; galdera horietatik 90 bakarrik ebaluatuko dira, eta beste 10ak erreserbakoak izango dira. Galdera bakoitzean lau erantzun izango dira, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena. Galderak epaimahaiak jarriko ditu, eta berak erabakiko du zer denboratan erantzun behar diren.

Galdera-sorta horretatik, lehenengo 30 galderak (1etik 30era bitarteko galderak), https://ope.bilbao.eus udal-webgunean aldez aurretik argitaratutako galdera-sortatik aterako dira, eta I. eranskineko programaren I. zatian (zati orokorra – 1etik 18ra bitarteko gaiak) jasotako gaietan oinarriturik egongo dira.

Hurrengo 60 galderak (31tik 90era bitarteko galderak) Epaimahaiak proposatuko ditu, I. eranskineko programaren II. zatian (zati espezifikoa – 19tik 90era bitarteko gaiak) oinarriturik, eta ez dira egongo aurretiaz argitaratuta.

Azkenengo 10 galderak erreserbako galderak dira, eta lehenengo 90 galderetakoren bat baliogabetzen bada bakarrik hartuko dira kontuan. Erreserbako 91.etik 100.era bitarteko galderak erabili behar badira, zorrotz jarraituko zaio euren hurrenkerari, kontuan izan gabe baliogabetzen den galdera edo galderak gai-zerrendaren zein ataletakoak diren.

Erantzun zuzen bakoitzeko 1,00 (bat) puntu emango da, eta okerreko erantzun bakoitzeko 0,33 (hogeita hamahiru ehunen) puntu kenduko da; beraz, zuzenean lortu ahal izango den gehieneko puntuazioa 90,00 (laurogeita hamar) puntu izango da, eta horrek 20 (hogei) punturen balioa izango du azken puntuazioan.

Erantzun gabe utzitako galderengatik eta erantzun bikoitzengatik ez da punturik kenduko.

Ariketari 0,00 (zero) eta 20,00 (hogei) puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta, gutxienez 10,00 (hamar) puntu lortzen ez dituzten izangaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Bigarren ariketa.—Nahitaezkoa eta baztertzailea

Ariketa praktikoa izango da, eta bertan idatziz garatuko dira kasu praktiko bat edo gehiago eta/edo gai, ariketa edo arazo bat edo gehiago, plazari dagozkion zereginetara egokituak eta zeregin horiekin lotuak, I. eranskinean jasotako gai-zerrendako II. zatiari (zati espezifikoa- 19.etik 90.era bitarteko gaiak) buruzkoak.

Gaiak garatzeko, gehienez ere, ordu bi eta erdi (2 h 30 min) izango dira.

Ariketaren zati hau egiten hasi aurretik, Epaimahaiak jakinaraziko du nolakoak izango diren zuzenketa-irizpideak eta puntuatzeko modua.

Ariketari 0,00 (zero) eta 20,00 (hogei) puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta, gutxienez 10,00 (hamar) puntu lortzen ez dituzten izangaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Hirugarren ariketa (proba fisikoa).—Nahitaezkoa eta baztertzailea. Deialdiaren II. eranskinean zehaztutako gaitasun fisikoko proba bat gainditu beharko da

Ariketa honetan gai edo ez gai balorazioa emango da, eta ez gai kalifikatutako pertsonak automatikoki baztertuko dira. Gai kalifikazioa lortzeko, deialdiko II. eranskinean zehaztutako gaitasun fisikoko proba gainditu beharko da. Gainera, beherago aipatzen den proban emaitza negatiboa lortu beharko da, proba hau egiteko hautatzen diren pertsonen kasuan.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dutela Udaleko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko osasun-langileek egin diezazkieten epaimahaiak hautaketa-prozesuko edozein unetan egoki iritzitako kontrolak edo azterketak

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

izangai guztiei edo hautatuak izan direnei, dela proba zehatzen batean lortutako sailkapen-hurrenkerari jarraiturik, dela ausaz erabakiko den hurrenkeran; kontrol edo azterketa horiek drogak, alkohola, sendagaiak eta, oro har, pertsonaren egoera psikofisiko normala alda dezaketen substantziak detektatzeko egingo dira, kirolean debekatutako substantzia eta metodoen zerrenda onartzen duen araudian (alegia, kontrola egiteko unean indarrean dagoen araudian) jasotako debekatutako substantziak barne.

Kontrol edo azterketa horietan positibo eman edo proba horiek egiteari uko eginez gero, hautagaia «ez gai»-tzat deklaratu eta hautaketa-prozesutik kanpo utziko da.

Izangairen bat probaren emaitzari eragin diezaioketen substantziaren bat jasotzen ari bada medikuaren aginduz, substantzia hori emateko agindua eman duen medikuak txosten bat egin beharko du, eta txosten horretan, historia klinikoa, aurrekariak, sintoma nagusiak, gaixotasunaren diagnostikoa, agindutako tratamendua eta dosiak, proba osagarriak eta horien datak eta mediku-errezeta erantsiko dira. Txosten horrek hiru hilabeteko balioa izango du, txostena egiten den egunetik aurrera zenbaturik, eta izangaiak proba egin aurretik entregatu beharko die medikuei, dopin-kontrola egiteko hautatua izanez gero.

Ez da inola ere onartuko txostena dopinaren aurkako kontrol positiboa egin ondoren aurkeztea.

Dopin-kontrola egiten duen instantzia espezializatuak egiten duen txostena ikusirik, epaimahaiak gaitzat edo ez-gaitzat joko du izangaia.

Indarrean dauden Oinarri Orokorretako Bosgarren Oinarriko 4. zenbakian ezartzen den bezala, izangaiek, proba horiek egitera aurkezte hutsagatik, beren osotasun fisikoaren gaineko erantzukizun osoa hartuko dute beren gain, eta korporazio honek eta Epaimahai kalifikatzaileak ez dute inolako erantzukizunik izango ariketak egitean gerta litezkeen lesioengatik.

Laugarren ariketa (euskarako proba).—Nahitaezkoa eta baztertzailea

Proba horretan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da epaimahaiak erabakitzen duen eran, horretarako Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak emandako gidalerroei jarraituz, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Honako hauek ez dute ariketa egin beharko: IVAPen 3. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C-1 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagiriren bat daukatenek, eta euskararen hizkuntza-eskakizuna Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dutenek. Horretarako, parte-hartzaileek baimen espresua eman beharko diote Bilboko Udalari, titulua aipatutako erregistroan egiaztatzeko. Izangaiek ez badute baimen hori ematen, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute, Epaimahaiak hala eskatzen dienean.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan (Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzekoa eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuestekoa) xedatutakoaren babesean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, betiere, hori ariketa hau egin aurretik egiaztatu bada.

Ariketa horretan, gai edo ez gai kalifikazioa emango da.

Oposizio-fasearen gehieneko puntuazioa

Fase honetan lortu ahal izango den gehieneko puntuazioa, euskararen proba kontuan hartu gabe, 40,00 (berrogei) puntu izango da.

B) *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketa-fasea oposizio-fasea amaitutakoan hasiko da, eta oposizio-fasea gainditu duten izangaiak bakarrik igaroko dira lehiaketa-fasera. Fase honetan, eskabideak aurkezteko epean adierazitako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira; merezimenduok behar bezala egiaztatu beharko dira epaimahaiak edo Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzak emandako epean. Iragarki baten bidez emango da epe horren berri, iragarki hori Udalaren iragarki-taulan eta udal-webgunean (https://ope.bilbao.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

eus) argitaratuko da. Merezimenduak oinarri hauetan zehaztutakoaren arabera baloratuko dira, eta ezin izango da beste merezimendurik baloratu. Ez da baloratuko inskripzio-eskabidean alegatu ez den merezimendurik, ezta espediente pertsonalean jasota badago edo dokumentazio hori Bilboko Udalaren esku badago ere. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arteko merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

1. Antzinatasuna

Administrazio publikoetan A taldeko A1 azpitaldeko suhiltzaile ofizialaren plazan emandako zerbitzuengatik: gehienez 15,00 (hamabost) puntu, 3,00 (hiru) puntu zerbitzu urte bakoitzeko edo sei hilabetetik gorako zati bakoitzeko.

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindako denboratzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1c) artikulua betez, esperientzia profesionalaren ondorioetarako, kontuan hartuko dira: izangaiak familiartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik eszedentzian egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzen laguntzea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora; eta emakumezko enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora.

2. Prestakuntza eta hizkuntzak

Atal honetan 3,00 (hiru) puntu emango dira, gehienez, honela banaturik:

2.1. Unibertsitateei buruzko abenduaren 6/2001 Lege Organikoaren 35. artikuluan eta unibertsitate-irakaskuntzen antolamendua eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 822/2021 Errege Dekretuan araututako titulazio akademiko ofizialengatik, titulazio horiek edukitzea deialdiaren betekizuna ez denean eta administrazio eskudunak balio akademiko ofiziala duten tituluak ematea aitortuta duen ikastetxe publiko edo pribaturen batek emandakoak direnean, honako xehetasun hauen arabera:

— Lizentziatura-, ingeniaritza- edo gradu-titulua (MECES 3): 2,00 (bi) puntu.

— MECES 2 graduko, arkitektura teknikoko, ingeniaritza teknikoko edo diplomaturako titulua edukitzea: 1,50 (bat koma berrogeita hamar) puntu.

— Unibertsitate-masterreko titulu ofiziala edukitzea: 0,50 (zero koma berrogeita hamar) puntu.

Ez dira baloratuko merezimendu gisa alegatutako goragoko titulu bat lortzeko behar diren beste titulazioak.

Izangaiek unibertsitate-ikasketa berberetako hainbat ziklo gainditu izana egiaztatzen badute, egiaztatutakoen artean gorengo zikloari dagokion titulua bakarrik baloratuko zaie, bai merezimenduetarako, bai prozesuan sartzeko titulazio gisa. Balorazioan, lortu den ikasketen MECES mailari begiratuko zaio, eta ez tituluaren izenari.

Unibertsitate titulu bat edukirik ikasketa horien berorien inguruko egokitzapen ikastaro bat egin eta unibertsitateko gradu-titulua lortzen den kasuan, titulu bakar moduan joko da titulu hori, jatorrizko tituluarekin batera.

Gradu-tituluarekin eta unibertsitateko masterrarekin MECES 3 maila ziurtatzen denean, unibertsitateko masterra ez da merezimendutzat joko baldin eta deialdira aurkeztu badira MECES 3 mailako lizentziaturak, ingeniaritzak edo arkitekturak dituzten izangaiak.

Inola ere ez dira baloratuko Unibertsitateei buruzko abenduaren 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluaren azken tartekian eta unibertsitate-irakaskuntzen antolamendua eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 822/2021 Errege Dekretuaren VIII. kapituluan araututako titulu propioak.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

2.2. Gaztelaniaz besteko Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak jakitea baloratuko da, zehaztutako mailen arabera, taula honen arabera:

A) B-2 maila: 0,50 (zero koma berrogeita hamar) puntu.

B) C-1 maila: 1,00 (bat) puntu.

Egiaztatzen den hizkuntza bakoitzean, izangaiak hizkuntza horretan duen jakite-mailarik altuena bakarrik puntuatuko da.

2.3. Baloratuko da:

a) Administrazio publiko eskudun batek prebentzio, suhiltzaile eta salbamendu zerbitzuko ofizial kategorian sartzeko emandako ikastaro bat gainditu izanaren ziurtagiria izatea, gutxienez 120 ordukoa: 1,00 (bat) puntu.

b) Sakonera txikiko edo handiagoko urpekari profesionalen titulua izatea, eta hautaketa-prozesu osoan urpekaritzan aritzeko gaikuntza indarrean izatea: 1,00 (bat) puntu. Administrazio eskudunak emandako gaikuntza-titulua edukitzea baloratuko da bakar-bakarrik, eta urpekari profesionalaren azterketa gainditu izanaren ziurtagiria urpekari profesionalaren azterketa gainditu izanaren ziurtagiri hutsa ez da baliozkoa izango. Era berean, urpekari-karneta edo -txartela prozesu osoan zehar egon beharko da indarrean, kenduta edo berritu ez delako iraungita egon barik.

Lehiaketa-faseko gehieneko puntuazioa

Lehiaketa-fasean, gehienez ere, 18,00 puntu (hemezortzi) lortu ahal izango dira.

Oposizioko azterketak amaitu eta lehiaketa-faseko merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak zehaztuko du zein den sailkapenaren hurrenkera, handitik txikira, hautaketa-prozesuaren fase biak baturik.

**Zazpigarrena.—*Oposizio- eta lehiaketa-faseen behin betiko kalifikazioa***

Hautaketa-prozesua osatzen duten proba eta/edo merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak hautatutako pertsonen zerrenda argitaratuko du, oposizio-fasea gainditu duten pertsonek lortutako puntuazioak eta, hala badagokio, lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioak batuz ateratako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Hautatuen kopurua ezin izango da izan deitutako plaza guztien kopurua baino handiagoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.6 artikuluan ezarritakoaren arabera. Epaimahaiak dagokion izendapen-proposamena egingo du, eta aipatutako zerrenda bidaliko zio Korporazioko alkate-udalburuari. Aldi berean, azken saioari buruzko akta bidaliko dio agintari horri, eta bertan agertuko dira, puntuazio-hurrenkeraren arabera, fase biak gainditu dituzten eta deitutako plaza kopurua gainditzen duten pertsonak. Plaza lortu dutenen arteko norbait plazaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar-bakarrik zerrenda hori, ez beste ezertarako, eta azken zerrenda horretan sartzeak ez du beste eskubiderik edo itxaropenik ekarriko, oinarri orokorren hamargarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Lan-poltsak kudeatzeko udal-araudiaren arabera, oposizio- eta lehiaketa-faseak kalifikatu ondoren, gutxienez ariketa bat gainditu duten eta prozesu osoa gainditu ez duten izangaiak epatuko dira, udaleko iragarki-taulan eta https://ope.bilbao.eus webgunean argitaratutako iragarki baten bidez, lan-poltsan sartzeko behar diren betekizun eta merezimenduak egiazta ditzaten. Behin dokumentazio guztia egiaztaturik, hortik aterako den zerrenda argitaratuko da, leku berberetan.

**Zortzigarrena.—*Agiriak aurkeztea***

Oinarri orokorren hamabigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

Funtzionario izatera iristeko proposatzen diren pertsonek 20 eguneko epea izango dute, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik aurrera, Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzan (Venezuela plaza, 2. solairua) hautaketa-prozesuan parte hartzeko hamabigarren oinarrian eskatutako egiaztagiriak aurkezteko.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

Izangaiek, edozein administrazio publikotan karrerako funtzionario izanez gero, ez dituzte aurkeztu beharko lehenagoko izendapenerako aurkeztuta dituzten ziurtagiriak. Kasu horietan, zein administrazio publikotan diren funtzionario, hark egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, funtzionario izatea egiaztatuz, eta, orobat, beren zerbitzu orrietan ageri diren gainerako gorabeherak egiaztatuz.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonek ez badute aurkezten deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizun eta baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa, edo hura aztertuta edo mediku-azterketatik ondorioztatzen bada ez dutela baldintzaren bat edo ez dituztela betetzen eskatutako betekizunak, horrek automatikoki kanpoan utziko ditu, eta ezin izango dira izendatu eta haien jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, hargatik eragotzi gabe hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzean eginiko faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna. Kasu horretan, Korporazioko alkate-udalburuak izendapen-proposamena egingo du, hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu eta baliogabetze horren ondorioz deitutako plaza-kopuruan sartzen diren izangaien alde.

**Bederatzigarrena.—*Prestakuntza-ikastaroa, praktikaldia eta izendapena***

Oposizio-lehiaketaren fasea puntuaziorik onenarekin gainditzen duten izangaiek prestakuntza-ikastaro bat eta praktikaldi bat egin beharko dituzte, hautaketa-prozeduraren beste fase bat baitira biak ala biak. Fase horretara igaroko diren izangaiak ezin izango dira plaza guztiak baino gehiago izan. Fase honek, gehienez ere, 12 hilabete iraungo du. Dagokion unean iragarriko da noiz hasiko den fase hori.

Gaitasuna lortu beharko da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak Euskadiko Suteen Prebentzio eta Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuetako ofizialen kategorian sartzeko emango duen prestakuntza-ikastaroan. Ikastaroaren helburua izangaiei behar besteko prestakuntza eta gaitasuna ematea izango da, suhiltzaileen ofizial gisa beteko dituzten lanpostuak eraginkortasunez betetzeko. Izangaiek ez dute ikastaro hori beharko, baldin eta aurreko edizioren batean gainditu dutela egiaztatzen badute edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak baliozkotu badie.

Praktikaldia Babes Zibileko Zuzendaritzan egingo da, Suhiltzaileen Ofizial lanpostua betez, eta gehienez ere 6 hilabeteko iraupena izango du. Praktikaldi horretan, deialdiko plazaren funtzioak eta zereginak zuzen betetzeko behar diren trebetasunak eta gaitasunak ebaluatuko dira, eta, bereziki, honako hauek:

A) Arlo hauetan frogatutako gaitasunak:

— Lanerako gaitasuna eta errendimendu profesionala.

— Arduraren zentzua eta efizientzia.

— Ikasteko interesa, jarrera eta ekimena.

B) Arlo hauetan frogatutako ahalmena:

— Lantaldean integratzea.

— Barruko eta/edo kanpoko harremanak egokitzea.

Ebaluazio-prozedurak praktikaldian ere jarraituko du, eta hamabost egun naturaletik gorako absentzia justifikatuen kasuan baino ez da etengo, berdin dela absentzia justifikatu horiek modu puntualean edo metatuan gertatzen badira. Kasu horretan dagoen pertsonak praktikaldirako erabaki den denbora guztia bete beharko du.

Ez bada prestakuntza-ikastaroa eta/edo praktikaldia egiten hasten edo gainditzen, izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da automatikoki, eta hautaketa-prozesuan jarraitzeko eskubide guztiak galduko ditu.

Izendatutako izangaiak praktiketako funtzionario izango dira, eta udal-langileen ordainsariak arautzen dituen akordioan adierazitako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute, eta alta emango zaie funtzionarioei aplikatzekoa zaien Gizarte Segurantzako araubidean.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

Egoera horretan egongo dira, izendapen-ebazpenean adierazten den egunetik plaza jabetzan hartzen den egunera arte, edota praktikaldi horretan deskalifikatuta geratzen diren egunera arte.

Izangaia gai edo ez gai kalifikatuko da, eta gai kalifikazioa lortu beharko da hautaketa-prozesuko fase hori gainditzeko.

Praktikaldi horretan, deitutako plazari dagozkion funtzioak eta zereginak zuzen betetzeko behar diren trebetasunak eta gaitasunak ebaluatuko dira, bai ezagutza teknikoak aplikatzeari dagokionez, bai lanerako gaitasunari, erantzukizunari eta ekimenari dagokienez, bai lantaldeetan integratzeari eta barruko eta kanpoko harremanak egokitzeari dagokionez.

Behin praktikaldia amaituz gero, Babes Zibileko Zuzendaritzak txosten bat egingo du izangaiaren gaitasunari eta baldintzei buruz, eta bertan adierazi du eskatutako gaitasun-maila lortu duela uste ote duen. Txosten hori hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari helaraziko zaio, eta hark erabakiko du, txostena azterturik, praktikaldia gainditu den ala ez, eta fase hori gainditu duen hautagaia izendatzeko proposamena egingo dio alkateari.

Hautagaien izendapena praktikaldiko edozein unetan utzi daiteke bertan behera, betiere izangaiak gaitasun edo aprobetxamendu egokia izan ez badu. Horrela denean, Babes Zibileko Zuzendaritzak proposamena egingo dio hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari, eta, hark, proposamena azterturik, izendapena bertan behera utzi ala ez erabakiko du. Hori egin ondoren, erabakitakoaren proposamena egingo dio alkateari.

**Hamargarrena.—*Behin betiko izendapena***

Behin betiko kalifikazioa eta izangaien lehentasun-hurrenkera ateratzeko, oposizio-faseko puntuazioari lehiaketa-faseko puntuazioa gehituko zaio, eta izendatzeko ezinbestekoa izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena lortzea.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, izangaiak hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapenean dauden hurrenkeraren arabera aukeratuko dira destinoak deitu diren txanda guztietan, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 71.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horretarako, prozesua amaitzean, zerrenda bakarra egingo da, eta, bertan, dagokion hautaketa-prozesua gainditu duten izangai guztiak jasoko dira, lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta, parte hartu duten txanda edozein dela ere, eta www.ope.bilbao.eus webgunean argitaratuko da.

Zerrenda hori behar bezala egiteko, derrigortasun-data igarota ez duen lanposturik badago, ez da kontuan hartuko euskarako nahitaezko ariketak gainditu dituztenei emandako gai kalifikazioa, horren ordez hizkuntza-eskakizuna merezimendua denean hizkuntza-eskakizunaren maila bakoitza egiaztatzeagatik deialdiko oinarri espezifikoetan ezarritako puntuazioa hartuko baita kontuan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak %40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Izendapena interesdunei jakinaraziko zaie, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da: https://ope.bilbao.eus.

**Hamaikagarrena.—*Karguaz jabetzea***

Udal organo eskudunak proposamena onartu ondoren, izendatutako izangaik karguaz jabetu beharko du eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.c) artikuluan eskatzen den baldintza bete beharko du, izendapena jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

Adierazitako epean arrazoi justifikaturik gabe karguaz jabetzen ez den pertsona kargua utzi duten egoeran geratuko da, karguari uko egiten diola ulertuko da, eta, ondorioz, galdu egingo ditu eskubide guztiak. Kasu horretan, Korporazioko alkate-udalburuak praktikaldiko izendapen-proposamena egingo du oposizio-faseko ariketak gainditu eta oposizio-faseko eta lehiaketa-faseko puntuazioak batuz baloraziorik onena lortzen duen eta eta aipatutako uko-egitearen ondorioz bete gabe geratutako deialdiko plazen kopuruan lekua duenaren alde, hori guztia oinarri hauen zazpigarren oinarriarekin bat etorriz.

Karrerako funtzionario izendatzen den pertsonak lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badu lanpostuaz jabetzeko unean, hutsik uzten duen plaza esleitu ahal izango da. Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak karrerako funtzionarioak izendatzeko egindako proposamen osagarria erabiliko da.

**Hamabigarrena.—*Aurkaratzeko bideak***

Oinarri hauen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke Bilboko Uriko Gobernu Batzordeari hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan hilabete biko epean, kasu bietan Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera zenbaturik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen arabera eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 29/1998 Legearen 46. artikuluaren arabera.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

I. ERANSKINA

I. ZATIA

**ZATI OROKORRA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

2. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. EAEren eskumenak: esklusiboak, lege bidez garatzekoak eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

3. gaia: Udalerria. Biztanle-kopuru handiko udalerrien antolakuntzako araubidea (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: X. titulua).

4. gaia: Bilboko Udalaren antolakuntza. Erregelamendu organikoak.

5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

6. gaia: 11/2022 Legea, abenduaren , Euskal Enplegu Publikoarena. Ordainsari-sistema euskal enplegu publikoan. Euskal enplegatu publikoen eskubideak, eginbeharrak, jokabide-kodea, bateraezintasunak eta erantzukizunak. Diziplina-araubidea.

7. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa.

8. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

9. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak bermatzekoa. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 Erregelamendua, apirilaren , Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EB Zuzentaraua indargabetzen duena).

10. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Bilboko Udalean indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Plana.

11. gaia: Administrazio-kontratazioa. Motak: elementuak eta subjektuak, kontratu publikoen xedea eta kausa. Kontratazioaren forma eta kontratistak hautatzeko sistemak. Kontratuak formalizatzea.

12. gaia: Giza baliabideak kudeatzeko tresnak: lan-eskaintza publikoa, enplegu-planak eta arrazionalizatzeko beste sistema batzuk.

13. gaia: Toki-erakundeen zerbitzurako langileak: motak eta araubide juridikoa. Toki-administrazioko funtzio publikoa: toki-administrazioko funtzionario motak. Langileak antolatzeko tresnak: plantillak eta lanpostuen zerrendak.

14. gaia: Toki-erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontuaren egitura. Aurrekontuak egitea eta onestea. Aurrekontuaren luzapena. Aurrekontua betearaztea eta likidazioa.

15. gaia: Toki-erakundeen ordenantzak eta erregelamenduak.

16. gaia: Gorte Nagusiak. Herriaren defendatzailea. Arartekoa.

17. gaia: Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumenen banaketa. Eskumenen banaketa Konstituzioan eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan.

18. gaia: Botere judiziala. Justizia-administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Justizia Auzitegi Nagusia: antolaketa, eremua eta osaera.

II. ZATIA

**ZATI ESPEZIFIKOA**

19. gaia: 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena. I. kapitulua: xedapen orokorrak. II. kapitulua: eskubideak eta eginbeharrak. III. kapitulua: babes zibila. IV. kapitulua: lazeria ez diren

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

larrialdiak kudeatzea. V. kapitulua: Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuak. VIII. kapitulua: zehapen-araubidea.

20. gaia: Euskadiko Babes Zibileko Plana, LABI.

21. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen Ziozko Larrialdiko Plan Berezia.

22. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Berezia.

23. gaia: Errepideez eta Trenbideez Salerosgai Arriskutsuak Garraiatzeak Dakarren Arriskua dela- eta Sor Daitezkeen Larrialdiei Aurre Egiteko Plan Berezia.

24. gaia: 277/2010 Dekretua, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko. I.etik V.era bitarteko kapituluak, biak barne.

25. gaia: 393/2007 Errege Dekretua martxoaren 23koa, Larrialdi egoerak sortarazi ahal dituzten jarduerak egiten dituzten bulego, establezimendu eta zentroetako Autobabeserako oinarrizko araua ebazten duena. Xedapen orokorrak. Irismena. Autobabes-plana. II. eranskina.

26. gaia: Eraikingintzaren Kode Teknikoa. Helburua. Oinarrizko eskakizunak. Aplikazio-esparrua. Eraikinen erabilerak edo horien SS OD eremuak.

27. gaia: Eraikingintzaren Kode Teknikoa (314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, eta haren aldaketak). SS OD 1. Barne-hedapena.

28. gaia: Eraikingintzaren Kode Teknikoa (314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, eta haren aldaketak). SS OD 1. Kanpo-hedapena.

29. gaia: Eraikingintzaren Kode Teknikoa (314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, eta haren aldaketak). SS OD 1. Suteen kontrako babes-instalazioak.

30. gaia: Eraikingintzaren Kode Teknikoa (314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, eta haren aldaketak). SS OD 5. Suhiltzaileen esku-hartzea.

31. gaia: Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta haren aldaketak. ESI oinarrizko dokumentua: Helburua. Aplikazio-eremua. Aplikatzeko irizpide orokorrak. ESI OD betetzeko baldintza bereziak.

32. gaia: Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta haren aldaketak. ESI Oinarrizko Dokumentua Erabilera-segurtasuna: SUA-1, SUA-2, SUA-3 eta SUA-5 sekzioa.

33. gaia: Establezimendu industrialetako suteen aurkako segurtasun araudia. I. kapitulua: xedea eta aplikazio-eremua. III. kapitulua: aldizkako ikuskapenak. IV. kapitulua: zer egin sutea gertatuz gero. V. kapitulua: Establezimendu industrialek suteen aurkako segurtasunean bete behar dituzten baldintza eta betekizunak.

34. gaia: Establezimendu industrialetako suteen aurkako segurtasun araudia. I. eranskina (1.1, 1.2 eta 1.4 taulak izan ezik).

35. gaia: 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Pirotekniazko Ikuskizunei buruzkoa.

36. gaia: 989/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, zeinaren bidez onesten baita piroteknia eta kartutxogintzako gaiei buruzko Araudia. 8. jarraibide tekniko osagarria: adituek egindako pirotekniazko ikuskizunak.

37. gaia: 550/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, urpekaritza-jardueren segurtasun-baldintzak zehazten dituena. I. kapitulua, II. kapitulua, III. kapitulua (3. atala eta 1. azpiatala) eta IV. kapitulua. III. eranskina, 2.1 puntua. Autonomoaren teknikako urpekaritza profesionalerako gutxieneko ekipamendua.

38. gaia: Suteen ikerketa I. Suaren deskribapena. Sugarraren koloreak. Kearen koloreak eta horien esanahia. Begi-ikuskapena. Begi-ikuskapenaren betekizunak. Ikerketa-metodo orokorra. Metodologia espezifikoa ikerketan. Suaren eremua mugatzea. Ke-marken eremuak. Bero-marken eremuak. Zuzeneko su-marken eremuak.

39. gaia: Suteen ikerketa II. Jatorri-puntua ebaluatzeko metodologia. Markak, kontzeptua eta marka motak. Ikaztearen eragina. Beste marka batzuk. Sute elektrikoak. Zirkuitulaburra. Gainkargak. Konexioak berriz berotzea. Leherketak, definizioa. Leherketa motak. Leherketen ondorioak.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

40. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 135/2006 Dekretua, abuztuaren 23koa, errepideetako tunelen segurtasunari buruzkoa. I. eta II. tituluak.

41. gaia: Bilboko kale-izendegia. Barrutiak, auzoak eta kaleak (udalaren webguneko kale-izendegian dago eskuragarri: https://www.bilbao.eus).

42. gaia: Larrialdiei aurre egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak.

43. gaia: Bilboko Udalaren taktika operatiboak.

44. gaia: Suhiltzaile-zerbitzuetarako kudeaketa operatiboaren eta agintearen eskuliburua I. 1. kapitulua: Oinarrizko printzipioak. 2. kapitulua: aginduen esparruak.

45. gaia: Suhiltzaile-zerbitzuen kudeaketa operatiborako eta aginterako eskuliburua II. 3. kapitulua: Aginte-maila bakoitzerako transmisio-kanalak antolatzea.

46. gaia: Suhiltzaile-zerbitzuen kudeaketa operatiborako eta aginterako eskuliburua III. 4. kapitulua: Tresna grafikoak.

47. gaia: Egiturazko suteak. Taktika-gida bisuala. 2023ko edizioa. I. zatia: Oinarriak.

48. gaia: Egiturazko suteak. Taktika-gida bisuala. 2023ko edizioa. II. zatia: Teknikak.

49. gaia: Egiturazko suteak. Taktika-gida bisuala. 2023ko edizioa. III. zatia: Taktikak.

50. gaia: Suteen aurkako borrokaren printzipioak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

51. gaia: Barruetako suteak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa)

52. gaia: Bilboko Udalaren barrualdeko suteetarako prozedura operatiboa.

53. gaia: Bilboko Udalaren garaiera handiko eraikinetako suteetarako prozedura operatiboa I. Definizioa. Arriskuak. Prebentzio-neurriak. Norbera babesteko ekipamenduak. Bitartekoak eta baliabideak mobilizatzea. Baliabideak kokatzea.

54. gaia: Bilboko Udalaren garaiera handiko eraikinetako suteetarako prozedura operatiboa II. Instalazioak prestatzea. Ponpen arteko akoplamendua. Ura bultzatzeko sistemak. Ura bideratzeko sistemak. Suari eraso egiteko instalazioak.

55. gaia: Bilboko Udalaren garajeetako suteen aurkako prozedura operatiboa. Definizioa. Arrisku motak. Prebentzio-neurriak. Mobilizatutako baliabideak eta bitartekoak. Baliabideak kokatzea. Funtzio operatiboak. Komunikazioak.

56. gaia: Gida operatiboa: Zisterna-ibilgailuetan gai arriskutsuak garraiatzean izaten diren istripuetan esku hartzea: gida.

57. gaia: Gida operatiboa: Zisterna-ibilgailuetan gai arriskutsuak garraiatzean izaten diren istripuetan esku hartzea: I. eranskina.

58. gaia: Gida operatiboa: Zisterna-ibilgailuetan gai arriskutsuak garraiatzean izaten diren istripuetan esku hartzea: IV. eranskina.

59. gaia: Salgai arriskutsuekin gertatutako istripuetarako prozedura operatiboa. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

60. gaia: Bilboko Udalaren prozedura operatiboa salgai arriskutsuekin gertatutako istripuetarako I. Zisterna motak. Erregaien zisternetan esku hartzeko prozedura orokorra. Ontzi-aldaketa bat egiten denean. Ontziz aldatzeko kontuan hartu beharrekoak eta beharrezko tresneria. Ontziz aldatzeko metodoak. Ontziz aldatzeko ponpa, ezaugarriak.

61. gaia: Bilboko Udalaren prozedura operatiboa salgai arriskutsuekin gertatutako istripuetarako II. Suhiltzaileak babesteko ekipamenduak: II. eta III. mailak. Jartzeko eta kentzeko prozedura. Deskontaminazioa. Bitartekoak eta baliabideak mobilizatzea. Funtzio operatiboak.

62. gaia: Banaketa-sareak eta instalazioak. A titulua: Elektrizitatea suhiltzaileentzat. B titulua: Gas instalazioetan eta banaketa sareetan esku hartzea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

63. gaia: Tuneletako suteetan esku hartzea I. Araudia. Airearen berezko mugimendua tuneletan. Tuneletako instalazioak. Aireztapen- eta ebakuazio-sistemak.

64. gaia: Tuneletako suteetan esku hartzea II. Tuneletako suteen arazoak. Esku hartzeko printzipio orokorrak.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

65. gaia: Bilboko Udaleko metro- eta tren-tuneletako suteetarako prozedura operatiboa. Definizioa. Arriskuak. Prebentzio-neurriak. Norbera babesteko ekipamenduak. Bitartekoak eta baliabideak mobilizatzea. Baliabideak kokatzea. Funtzio operatiboak. Komunikazioak.

66. gaia: Erreskatea trafiko-istripuetan. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa)

67. gaia: Bilboko Udalaren prozedura operatiboa trafiko-istripuetarako. Definizioa. Arriskuak. Prebentzio-neurriak. Norbera babesteko ekipamenduak. Bitartekoak eta baliabideak mobilizatzea. Baliabideak kokatzea. Funtzio operatiboak.

68. gaia: Trafiko-istripuetan esku hartzea. Ibilgailuak egonkortzeko maniobra orokorrak: lau gurpilen gainean, alboko iraulketa eta sabaiaren gaineko iraulketa. Abordatzeko eta askatzeko maniobra orokorrak.

69. gaia: Egiturak eraikitzeko eta egonkortzeko printzipioak. A Titulua: eraikuntza-printzipioak.

70. gaia: Egiturak eraikitzeko eta egonkortzeko printzipioak. B Titulua: egiturak egonkortzea.

71. gaia: Altuerako lanak eta erreskateak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

72. gaia: Ur-azaleko erreskatea. Ur-azaleko erreskateari buruzko teoria. Igeri egiteko, biktimagandik libratzeko eta herrestan eramateko teknikak. Uretako salbamendu- eta erreskate-materialak. Uretara sartzeko eta handik irteteko teknikak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

73. gaia: Ur-azaleko erreskatea. Uretako erreskatearen faseak. Erreskatatu beharreko pertsona ibilgetzea. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

74. gaia: Bilboko Udalaren uretako erreskateetarako prozedura operatiboa.

75. gaia: Bilboko Udalak suizidio-saiakeretan esku hartzeko duen prozedura operatiboa.

76. gaia: Bilboko Udalak arrisku biologikoa duten erreskateetarako duen prozedura operatiboa. Definizioa. Arriskuak. Prebentzio-neurriak. Norbera babesteko ekipamenduak. NBEa jartzea. Kutsatutako eremuetara sartzea. NBEa kentzea.

77. gaia: Arrisku naturalak. I. kapitulua: sarrera. II. kapitulua: arrisku naturalen tipologia. III. kapitulua: babes zibilerako informazio meteorologikoa. Eranskina: erleak eta liztorrak. Erlauntza. Erle eta liztorrei buruzko orokortasunak. Erleen antolaketa soziala. Erlauntza eta erlategia. Erlekumaldia. Liztorrak eta erlastarrak. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

78. gaia: Erleak eta liztorrak neutralizatzeko Bilboko Udalak ezarritako prozedura operatiboa. Arriskuak. Prebentzio-neurriak. Erle arruntaren, kuruminoaren eta liztor asiarraren arteko desberdintasunak. Erle multzo handiekin jarraitu beharreko prozedura. Kurumino-habiekin jarraitu beharreko prozedura. Kurumino-habiekin esku hartzeko NBEa. Jartzea.

79. gaia: Arnasa babesteko ekipamenduak. 3. kapitulua: arnasa babesteko ekipamenduen sailkapena. 4. kapitulua: aire-kontsumoak kalkulatzea. 5. kapitulua: arnasketa autonomoko ekipamenduen erabilera-teknikak. 6. kapitulua: esku hartzeko eta kontrolatzeko oinarrizko prozedurak. 7. kapitulua: kaltedun langileei laguntzea arnasketa autonomoko ekipamenduekin. 8. kapitulua: mugikortasun segurua eta eraginkorra. 9. kapitulua: soka gidaria. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

80. gaia: Sua itzaltzeko baliabideak. Operazioak eta instalazioak mahukarekin. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

81. gaia: Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika. (Suhiltzailearen eskuliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

82. gaia: Suteen aurkako lanetan arriskuak ebaluatzea I. Suteak etxebizitza-eraikinetan. Suteak industrian. Suteak lurpeko garaje eta galerietan. Suteak tximinietan.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

83. gaia: Suteen aurkako lanetan arriskuak ebaluatzea II. Suteak zabor-edukiontzietan. Suteak ibilgailuetan. Suteak tuneletan. Suteak instalazio elektrikoetan. Baso-suteak.

84. gaia: Erreskate- eta salbamendu-lanetan arriskuak ebaluatzea I. Trafiko-istripuetako erreskateak. Uretako erreskateak. Aireko egituretako erreskateak. Erreskatea egitura kolapsatuetan eta lur-jausietan.

85. gaia: Erreskate- eta salbamendu-lanetan arriskuak ebaluatzea II. Putzu, lurpe, galeria eta gune konfinatuetako erreskateak. Igogailuetako, karga-jasogailuetako eta eskailera mekanikoetako erreskatea. Mendiko erreskatea. Biktima elektrokutatua erreskatatzea. Suizidei laguntzeko erreskateak.

86. gaia: Laguntza teknikoa emateko lanetan arriskuak ebaluatzea. Ura ateratzea. Eraikinak saneatzea. Bide publikora jausitako elementuak. Egoera txarrean dauden arbolak. Erleak eta liztorrak. Animalien erreskatea. Energia-eskakizunak. Egoera txarrean dauden zaborrak.

87. gaia: Gai arriskutsuekin egin beharreko lanetan arriskuak ebaluatzea. Salgai arriskutsuekin izandako istripuak. Arrisku biologikoa duten lanak. Gas-ihesak eraikinetan edo bide publikoan. Gertakariak ingurumenean. Gertakari erradiologikoa.

88. gaia: Laneko jantziak deskontaminatzeko eta garbitzeko segurtasun-jarraibide teknikoa. Definizioa. Garbiketa motak. Parkean tratatzeko eta garbitzeko ekipamenduak. Jantziak garbitzeko eta deskontaminatzeko lanen arriskuak. Prebentzio-neurriak. Prozedura.

89. gaia: Autoeskaileren bidezko lanari buruzko segurtasun-jarraibide teknikoa. Plataforma abian jarri aurreko arauak. Autoeskailera jaso aurreko arauak. Beste segurtasun-arau batzuk.

90. gaia: Ibilgailuen sabaiko lanei buruzko segurtasun-jarraibide teknikoa. Aurretiazko segurtasun-arauak. Ibilgailuaren sabaira joateko arauak.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

II. ERANSKINA

**PRUEBA FISIKOA**

2.000 METROKO LASTERKETA

**Helburua**

Parte-hartzaileek ahalegin luzeagoak edo laburragoak eta intentsitate handiagokoak edo txikiagokoak egiteko duten erresistentzia-maila ebaluatzea.

**Deskribapena**

Atletismo-pista batean, 2.000 metroko distantzia egin beharko da oinez, korrika edo bi moduetan, ahalik eta denbora laburrenean. Lasterketa hasi ondoren, ezin izango da pista utzi; hala eginez gero, deskalifikatuta geldituko litzateke.

Abiapuntuko posizioa zutik eta taldean egingo da. Ezin izango da iltzedun zapatarik erabili.

**Neurketa**

Saiakera bakarra egingo da. 2.000 m-ko distantzia adierazitako jarraibideen arabera egiteko erabilitako denbora idatziko da. Neurketa minutu-segundo-ehunenetan egingo da (00:00:00). Eskuz, bideo-finisha erabiliz edo bietara egingo da neurketa, eta modu horietako edozeinek balioa izango du.

| Gizonezkoak | | Emakumezkoak | |
|---|---|---|---|
| Adina | Denbora | Adina | Denbora |
| 25 urtetik behera | < 08´00´´ | 25 urtetik behera | < 09´00´´ |
| 25 urtetik 35 urtera | < 09´00´´ | 25 urtetik 35 urtera | < 10´00´´ |
| 36 urtetik 45 urtera | < 10´00´´ | 36 urtetik 45 urtera | < 11´00´´ |
| 46 urtetik 55 urtera | < 11´00´´ | 46 urtetik 55 urtera | < 12´00´´ |

Ehunenak, beherantz biribilduko dira ehunen batetik 50 ehunenera (biak barne). Eta gorantz, 51 ehunenekotik 99ra (biak barne).

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

III. ERANSKINA

**PROZESUTIK BAZTERTZEKO OSASUN-ARRAZOIEN TAULA**

**A) Bazterketa orokorra**

Gaixotasunak edo akats psikofisikoak dituztenak bazterturik geldituko dira udal honetako funtzionario gisa edozein lanpostu betetzeko aukeratik, baldin eta gaixotasuna edo akats psikofisikoa izateagatik, bere eboluzioagatik, sekuelagatik, tratamenduagatik edo kontrolatzeko beharragatik murrizketa funtzional nabarmena izaten badute lanpostuari dagozkion funtzioak betetzeko, alde batera utzirik akutua edo kronikoa den, betiere interesduna lanera sartu aurretik Udal Zerbitzu Medikoek aztertzen duten unean osatuta ez badaude.

Era berean, intoxikazio akutuaren edo kronikoaren egoera adierazten duten sintoma edo zeinu kliniko-biologikoak egotea ere izango da prozesutik baztertzeko arrazoia.

**B) Ikusmena**

1. Ikusmen-zorroztasuna: zuzentasunez edo zuzentasunik gabe ez dute izan behar begi bakoitzeko ikusmenaren Wecker eskalako 8/10 baino txikiagoa.

2. Ikusmen-eremua: ez dute ikusmen-eremuaren murrizketa esanguratsurik izan behar.

3. Ez dute izan behar hemeralopiarik, diplopiarik, lagoftalmiarik edo betazal-ptosirik.

4. Ez dute izan behar alde bateko edo biko afakiarik.

5. Itsualdietara egokitzea: gehienez 20 sf.

6. Konjuntibitisa, keratitisa edo iritis kronikoa. Koriorretinitis kronikoa.

7. Ikusmen kromatikoa: koloreak identifikatu beharko dira, eta diskromatopsiak eta daltonismoa prozesutik baztertzeko arrazoiak izango dira.

8. Epaimahai medikoaren iritziz plazaren funtzioak betetzea mugatzen duten beste prozesu oftalmologiko batzuk.

**C) Entzumena**

1. Entzumen-zorroztasuna: 5000, 1000, 2000 eta 3000 Hz elkarrizketa-maiztasunetako entzumen-atalaseek ez dute 35 dB baino gehiago izan behar, edozein maiztasunetan. Ez da onartzen 45 dB-tik gorako entzumen-mailarik 4000 Hz-ko maiztasunean.

Kanpoan geratzen dira hipoakusia progresiboa dutenak.

2. Sindrome zorabiagarriak eta orekaren edozein nahaste.

3. Ez da onartzen entzumen-protesiak erabiltzea.

4. Estapedektomia bidezko otosklerosi-kirurgiaren aurrekariak.

5. Otitis kronikoa.

6. Fonazioaren zailtasun garrantzitsuak eta kronikoak. Hitzezko komunikazioa normaltasunez garatzeko gaitasuna kaltetzen duten disfonia iraunkorrak.

7. Epaimahai medikoaren iritziz, plazari dagozkion eginkizunak betetzeko mugak sortzen dituen edozein prozesu otorrinolaringologiko.

**D) Nerbio-sistema**

1. Sortzetiko edo hartutako garezurreko lesioak, eragin anatomiko handia edo funtzionala dutenak.

2. Entzefalopatia kronikoak edo sekuela akutuak.

3. Muineko afekzio kronikoak eta akutuen sekuelak.

4. Krisi konbultsiboak edo gaitz kaltegarri txikiagoko krisiak dituzten gaixotasun kronikoak.

5. Dardara edo espasmo kronikoak.

6. Defizit motorra edo sentsitiboa.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

7. Hitz-totela eta/edo komunikatzeko zailtasuna, baldin eta Epaimahai medikoaren iritziz plazaren funtzioak betetzea eragozten badu.

8. Epilepsia, filiatu gabeko konbultsioak.

9. Epaimahai medikoaren iritziz plazari dagozkion funtzioak betetzea mugatzen duen beste edozein prozesu neurologiko.

**E) Egoera mentala**

1. Psikosi eskizofrenikoa.

2. Sindrome ziklikoa: maniakoa edo depresiboa.

3. Intoxikazio exogenoaren adierazle diren sintomak eta/edo zeinu biologikoak (abusuzko drogen metabolitoak detektatzea). Toxikomaniak, alkoholismoa barne.

4. Adimen-atzerapena.

5. Neurosi larriak.

6. Nortasunaren nahasmenduak: pertsona paranoidea, leherkorra, antisoziala, histerikoa, desegokia, eskizoidea, ziklotimikoa, baldin eta sakonki irakatsitako jokabide moldakaitzak badira suhiltzaile-lanak dakartzan arriskuekin bateraezinak direnak.

7. Intoxikazio exogenoaren adierazle diren sintoma eta/edo zeinu kliniko biologikoak (abusuzko drogen metabolitoak detektatzea).

8. Epaimahai medikoaren iritziz plazari dagozkion funtzioak betetzea mugatzen duten buruko eta jokabideko nahasmenduak edo horien aurrekariak.

**F) Lokomozio-aparatua**

1. Lokomozio-aparatuaren mugikortasun normala egon behar da maila guztietan.

2. Gorputz-adarretan deformaziorik ez egotea.

3. Bizkarrezurra; eragin estatikoa edo funtzionala duen akatsik ez izatea.

4. Erreumatismo kronikoak.

5. Lokomozio-aparatuko beste edozein prozesu, baldin eta Epaimahai medikoaren iritziz plazari dagozkion funtzioak betetzea mugatzen badu.

**G) Sistema kardiozirkulatorioa**

1. Bihotz-gutxiegitasuna.

2. Arritmiak: bere forma suprabentrikular kronikoetan (prekitzikazioaren sindromea eta antzekoak), 2. edo 3. mailako blokeo aurikulobentrikularrak eta automatismo bentrikularra areagotzea.

3. Koronariopatiak.

4. Perikarditis kronikoa.

5. Ondorio organikoak dituen hipertentsio arteriala.

6. Hodi handietako bihotzeko aneurismak.

7. Esku/oinetako arteriopatia periferikoak, sintomatikoak edo horien funtzionaltasuna zailtzen dutenak.

8. Gorputz-adarretako zirkulazio benoso eta linfatikoaren arrasto kronikoak, ondorio funtzionalekin.

9. Bihotz-balbuletako protesiak.

10. Bihotz-balbulopatiak.

11. Epaimahai medikoaren iritziz plazari dagozkion funtzioak betetzea mugatzen duten beste edozein nahasmendu kardiobaskular.

**H) Arnas aparatua**

1. Arnas funtzioan eragin iraunkorra edo noizbehinkakoa duten arnas gaixotasun kronikoak. Bizi-gaitasuna, gutxienez balio teorikoaren %10.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

2. Aire-bideetako gaixotasun buxatzaileak. Bronkioetako asma iraunkorra, c.

3. Pneumotorax errebindikatzailea (salbu eta zuzenketa kirurgikoa egin badu).

4. Arnas proba funtzionaletako edozein patologia edo nahasmendu, baldin eta epaimahaiaren iritziz plazari dagozkion funtzioak betetzea mugatzen badu.

**I) Digestio-aparatua**

1. Hepatopatiak, edozein eboluzio-egoeratan.

2. Hesteetako gaixotasun inflamatorio kronikoa.

3. Sekuela funtzionalak dituen digestio-patologia edo ebakuntza kirurgiko oro, baldin eta epaimahai medikoaren iritziz ondorio organikoek plazaren eginkizunak betetzea mugatzen badute.

**J) Giltzurrun-sistema**

1. Giltzurrun-gutxiegitasuna. Giltzurrun-gutxiegitasuneranzko eboluzioa duten nefropatia kronikoak.

2. Giltzurrun baten gabezia anatomikoa edo funtzionala.

3. Mikzioa, errefluxuak eta infekzioak aldatzea dakarten gernu-bideetako anomaliak.

4. Epaimahai medikoaren iritziz lanpostuaren eginkizunak betetzea mugatzen duen beste edozein giltzurrun-prozesu.

**K) Gaixotasun endokrinoak**

1. Kanpoan geratzen dira 18tik beherako edo 28tik gorako GMI dutenak eta gizonen artean %23tik gorako gantz-ehuna dutenak eta emakumeen artean %31tik gorakoa dutenak, inpedantzia bioelektriko bidez neurturik.

Funtzioak behar bezala betetzea zailtzen edo eragozten duen obesitatea.

28tik gorako GMIa onartzen da objektiboki eta argi eta garbi gertatzen bada, ez gorputzeko gantza handitzeagatik, baizik eta muskulu garapen markatu batengatik, eta ez badu ez patologiarik ez arrisku faktore gainerantsirik.

2. Ordezko terapia jarraitua behar duten prozesu endokrino-metabolikoak, suhiltzaileen funtzioak normaltasunez garatzeko gaitasuna murrizten dutenak; halakoak banan-banan eta dagokion organo fakultatiboak emandako txostenarekin ebaluatuko dira.

3. Tratamenduaren beraren edo tratamenduaren ondorioz gaitasun psikofisikoa aldatzen duten nahasmendu metabolikoak, gaitasun funtzionalari eragiten diotenak edota lanaren ondorioz patologiaren egonkortasuna aldatzen dutenak.

**L) Dermatologia**

1. Gaixotasun infekziosoak eta anpoilosoak, larruazaleko kronikoak.

2. Epaimahai medikoaren iritziz plazari dagozkion funtzioak betetzea mugatzen duen edozein prozesu dermatologiko.

**M) Sistema hematopoietikoa**

1. Tratamendu antikoagulatzailea behar duten prozesuak.

2. Odoleko gaixotasunak eta organo hematopoietikoak, kronikoak edo eboluzio progresiboa dutenak, baldin eta Epaimahai medikoaren iritziz plazari dagozkion funtzioak betetzea mugatzen badute.

**N) Hainbat motatako patologiak**

1. Prozesu neoplasikoak.

2. Gaixotasun immunologikoak eta erreumatologikoak.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

**Ñ) Beste betekizun espezifiko batzuk**

1. Bizi-gaitasuna, gutxienez balio teorikoaren %10, neurriaren arabera.

2. Erreakzio-gaitasuna murriztu dezakeen edo funtzionalki plazaren funtzioak garatzeko gaitasuna aldatzen duen edozein botika edo droga erabiltzea.

---

Martxoaren 13ko 38/2012 Dekretua, Historia klinikoari buruzkoa eta osasun arloko profesionalek eta pazienteek dokumentazio klinikoaren alorrean dauzkaten eskubide eta betebeharrei buruzkoa.

2. artikulua.—*Aplikazio-eremua*

1. Dekretu hau aplikatzen zaie Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-zentro publiko eta pribatu guztiei –lehen mailako arretako zentroei nahiz zentro espezializatuei– eta banakako osasun-jarduerei.

2. Berebat aplikatzen zaie Dekretu hau osasun-arlokoa ez den erakunde batean integratuta dauden osasun-zerbitzuei.

28. artikulua.—*Pazienteen obligazioak*

1. Pazienteek leial eta egiati eman beharko dituzte beren identifikazioari eta beren egoera fisikoari edo osasunari buruzko datuak, osasun-laguntza emateko beharrezkoak direnean nahiz behar bezala arrazoituriko interes orokorreko arrazoiak tartean daudenean.

Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betez, jakinarazten dizugu zure datuak fitxategi batean daudela, eta fitxategi horren titularra Bilboko Udal Entitateen Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua dela.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)

Kultura eta Gobernantza Saila.
Área de Cultura y Gobernanza
**Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritza/**
**Dirección de Organización y Gestión de Recursos Humanos**

# Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión

## 1.- Deialdia / Convocatoria

Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: OFICIAL BOMBERA/O / SUHILTZAILE OFIZIALA

Sartzeko sistemak / Sistemas de acceso:: Lehiaketa Concurso ☐ Oposizioa Oposición ☐ Oposizio-lehiaketa Concurso-oposición ☐

**Txanda / Turno:** Askea / Libre ☐ Barne sustapena Promoción interna ☐ Desgaitasunen bat duten pertsonak Personas con figurar ☐

## 2.- Norberaren datuak / Datos personales

| | | |
|---|---|---|
| Lehenengo abizena / Primer apellido | Bigarren abizena / Segundo apellido | Izena / Nombre |

| | | | |
|---|---|---|---|
| NAN / AIZ / DNI / NIE: | Naziotasuna / Nacionalidad | Jaioteguna / Fecha de Nacimiento: | Sexua / Sexo<br>E. / M. ☐ G. / H. ☐ |

| | | |
|---|---|---|
| Telefono finkoa / Teléfono fijo | Telefono mugikorra / Teléfono móvil | Posta elektronikoa / Correo electrónico |

## 3.- Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Helbidea / Dirección | Ataria Portal | Eskailera Escalera | Solairua Piso | Eskua Mano | Atea Puerta |

| | | | |
|---|---|---|---|
| PK / CP: | Herria / Localidad | Probintzia / Provincia | Herrialdea / País |

## 4.- Euskara / Euskera

**Profila egiaztatzen dut (jarri "X" dagokion lekuan) / Acredito el perfil (marcar con una "X" el correspondiente)**

**1 HE / PL1** ☐ **2HE / PL2** ☐ **3HE / PL3** ☐ **4HE / PL4** ☐

**Euskara azterketa egitea eskatzen dut / Solicito realizar examen de euskera**

**1 HE / PL1** ☐ **2HE / PL2** ☐ **3HE / PL3** ☐ **4HE / PL4** ☐

## 5.- Aukera ezazu oposizioaldia egiteko nahi duzun hizkuntza / Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición.

Euskara / Euskera ☐ Gaztelania / Castellano ☐

## 6.- Betebeharrak / Requisitos

Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria:

Deialdian eskatutako beste dokumentu batzuk (gidabaimena eta bestelakoak) / Otros documentos exigidos (permiso de conducir, otros)

**Tasak deialdiaren berariazko oinarrietan xedatutakoaren arabera ordainduko dira.**

**El abono de las tasas se hará de conformidad con lo dispuesto en las bases específicas de la convocatoria.**



cve: BAO-2023a217-(II-5415)

Kultura eta Gobernantza Saila.
Área de Cultura y Gobernanza
**Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritza/**
**Dirección de Organización y Gestión de Recursos Humanos**

## 7.- Merituak / Méritos

Merituen zerrenda / Relación de méritos

| | |
|---|---|
| **1** | |
| **2** | |
| **3** | |
| **4** | |
| **5** | |
| **6** | |
| **7** | |
| **8** | |
| **9** | |
| **10** | |
| **11** | |
| **12** | |
| **13** | |
| **14** | |
| **15** | |

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarrirako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

## 8.- Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

**Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:**

| | |
|---|---|
| | Bilboko Udalean indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, onartzen dut nire datuak Administrazio Publikoen beste Erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. / Consiento la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del Ayuntamiento de Bilbao. |
| | EZ NAGO AURKA Bilboko Udalak, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, hizkuntza eskakizun, IT txartel, gidabaimen eta Administratzio Publikoetan egindako zerbitzuak kontsulta eta egiazta ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean, eta JAKINAREN GAINEAN NAGO. Aurka eginez gero, dagozkion agiriak erantsi beharko dira, eskatzen diren unean. / QUEDO INFORMADO Y NO ME OPONGO a que el Ayuntamiento de Bilbao consulte y verifique por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, perfiles lingüísticos, IT Txartelas, permisos de conducción y servicios prestados en Administraciones Públicas alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de oponerse deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes en el momento en el que sea requerido. |
| | Baimena ematen diot Bilboko Udalari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan.. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el Ayuntamiento de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso.selectivo. |

**Lege-informazioa / Información legal**

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezietan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

**Jarri "X" laukitxoan / Marque con una "X" en el recuadro**

| | |
|---|---|
| | ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO |

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

tokia / lugar urtea / año hilabetea / mes eguna / día

Sinadura / Firma

**BILBOKO UDALEKO ALKATE JAUN TXIT GORENA**
EXCELENTÍSIMO. SR. ALCALDE DE BILBAO

2

Kultura eta Gobernantza Saila.
Área de Cultura y Gobernanza
**Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritza/**
**Dirección de Organización y Gestión de Recursos Humanos**

**DATUEN BABESA**

Honako hau jakinarazten dizut, datuak babesteko indarrean dagoen araudian aurreikusitako ondorioetarako:

Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.

Eman dituzun datuak kontserbatuko dira aplikagarriak diren arau-xedapenek hala inposatzen duten bitartean.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikuluak) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua denean egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art. eta hurrengoak) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litezkeen lan-poltsak kudeatzea denean.
Aurreko tratamenduetarako beharrezkoak diren datuak eman ezean, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.

Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berariaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.

Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANa, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berariaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.

Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimitaterik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.

**PROTECCIÓN DE DATOS**

A los efectos previstos en la normativa vigente en materia de protección de datos, se le informa que:

Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultas del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.

Los datos proporcionados se conservarán mientras así lo impongan las disposiciones normativas aplicables.

La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (arts. 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (art. 10 y siguientes).

De no facilitarse los datos necesarios para los anteriores tratamientos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo.

La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.

Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, D.N.I, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.

Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.

eek: BAO-2023a217-(II-5415)